

## IDEIAREN DESKRIBAPENA

Sortu berri dugun GAIU izeneko enpresa honetan; material birziklatu eta berrerabilgarriz eginiko diseinuzko higiene tresna edo materialak sortzen lan egiten dugu.

Produktu horiek eramango dituzten diseinu bereizgarriak guk sortu eta diseinatutakoak izango dira. Diseinu hauek margoz, pinturaz, telaz, etab. eginikoak izan daitezke.

Aipatutako higiene produktu horiekin “pack” edo pakete bezalako bat sortzeko ideia dugu; bertan objektu desberdinak bilduz. Esan beharra dago kutxa edo pakete hau ere material birziklatuaz eginikoa izango dela. Egurrezko oinarria izango du; otzara baten antzera.

Otzara horren barruan hortzetako eskuila, orrazia, pintzak, substantzia kimiko gabe etxean eginiko xaboia eta desodorantea, etab. produktu bilduko ditugu. Hauetako objektu batzuen oinarria ere egurra izango da.



Oraindik ez dugu zehaztu gainerako materialak zeintzuk izango diren; baina birziklatuak eta ahalik eta gutxien kutsatzen dutenak erabiliko ditugu. Adibidez; desodorantea silikonazko botila batean joango da.

“Pack”-az gain, produktu bakoitza indibidualki lortzeko aukera ere egongo da; eta baita produktu desberdinak aukeratuz, pakete pertsonalizatua sortzeko aukera ere.